

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat elkartze egitea funtsezkoa da.

Lehendabizikoa, Informatika enpresa batekin elkartzea da. Bertan, App-ak egiten dakien norbaitekin kontaktuan jarri eta hau egiten lagunduko digute.

App hau mugikorretan izango da erabilgarri edonon erabili ahal izan dezaten. App hau internetik gabe erabiltzeko aukera izango dute, horrela kalean daudenean ez dute daturik gastatu behar izango. Aplikazioan bezero bakoitzak bere kontua sortu beharko du, bertara, mezuak, abisuak... iritsiko zaizkio.

App-a sortuko duen enpresa Mobilendo izan daiteke.



Bestalde, ordenagailuetarako, beste enpresa batek software programa bat egin beharko du. Programa honi esker App-ak ematen dituen erraztasun guztiak ordenagailuan edukitzeko aukera emango digu.

Ordenagailuaren programazioaz Adimedia izeneko enpresa arduratuko da.

